

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Behin behineko kontratazioetarako Lanbide Heziketako 13 zerrenda ireki dira gaur

Izena emateko epea uztailaren 23ra arte egongo da irekita

Astelehena, 2018.eko uztailak 16

Lanbide Heziketako 13 espezialitatetan izena emateko epea ireki du gaur Hezkuntza departamentuak. Aldi baterako kontratazioetarako zerrendak osatuko dira izena ematen dutenekin.

Zehazki ireki diren zerrendak honakoak dira: Esku-hartze soziokomunitarioa (euskaraz); Komunitateari zerbitzuak (euskaraz); Industria analisia eta kimika (gaztelerez); Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak (gaztelerez); Ile-apaindegia (gaztelerez); Sistema elektronikoa eta automatikoak (gaztelerez); Merkataritza prozesuak (euskaraz); Patroigintza eta jantzigintza (gaztelerez); Zura eta altzari prozesuak eta produktuak (gaztelerez); Aroztegi eta altzari ekoizpen eta instalazioa (gaztelerez); Erizaintza prozesuak (gaztelerez); Eraikuntza proiektuen bulegoa (gaztelerez); Mekanizatuak eta makinak mantenua (gaztelerez).

Zerrenda espezifikoek oraintsu onartutako 51/2018 Foru Aginduak dioenari jarraituz, eskariak aurkezteko epea astebetetz egongo da zabalik, gaurtik eta uztailaren 23ra, bitartean (14:00ak arte). Era berean, gehiegizko eskariak egonez gero, Departamentuak itxi egin ahal izango ditu alde aurretik izen-emateak.

Kontratazio zerrendetara gehitzeko interesa dutenek bide elektronikoa erabili beharko dute, [aplikazio bidez](#).

Deialdi honetatik sortzen diren zerrendak abuztuaren bigarren hamabostaldian egingo diren leku-aukera prozesuak antolatzen izango dira.